



**AGINDUA, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzeko den Agindua, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuarena, hirugarren aldiz aldatzeko, Agindu-egitasmoa aldeztu aurretik onartzeko dena.**

**ORDEN de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de Orden de tercera modificación de la Orden de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula la evaluación y certificación de los niveles de competencia lingüística en euskera, y se fijan los criterios para las convocatorias de ayudas al alumnado de los cursos de euskera para personas adultas.**

Jaurlaritzaren lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren irailaren 2ko Aginduaren bidez, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzeko den Agindua, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuarena, hirugarren aldiz aldatzea prestatzeko prozedura hasteko agindu zen.

Por Orden de 2 de septiembre de 2025, de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, se ordenó el inicio del procedimiento de elaboración del Proyecto de Orden de tercera modificación de la Orden de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula la evaluación y certificación de los niveles de competencia lingüística en euskera, y se fijan los criterios para las convocatorias de ayudas al alumnado de los cursos de euskera para personas adultas.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura arautzen duen 6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak (aurrerantzean, XOEPL), xedatzen du, bere 15. artikuluan, behin arau-egitasmoa idatzita dagoenean prozedura abiatu duen organo beraren aldeztu aurreko onarpena jaso beharko duela, entzunaldiak eta hurrengo izapideak bideratu aurretik.

La Ley por la que se regula el Procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, Ley 6/2022, de 30 de junio (en adelante, LPEDG), dispone en su artículo 15 que una vez redactado el proyecto normativo, el mismo deberá contar con la aprobación previa del órgano que dictó la Orden de inicio del procedimiento, con anterioridad a las audiencias y ulteriores trámites.

Prozedura honen xede den Agindu-egitasmoa idatzita dagoenez, bidezkoa da egitasmoari aldeztu aurreko onarpena ematea, hurrengo izapideekin jarraitu ahal izateko.

Habida cuenta de que se encuentra redactado el proyecto normativo que constituye el objeto del presente procedimiento, procede otorgarle la aprobación previa, a fin de continuar con su tramitación.

Horrenbestez,

En su virtud,

#### **EBAZTEN DUT:**

#### **RESUELVO:**

**Lehenengoa.-** Aldeztu aurreko onarpena ematea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Agindua hirugarrenez aldatzeko agindu-proiektuari. Agindu horren bidez, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailen ebaluazioa eta ziurtapena

**Primero.-** Proceder a la aprobación previa del Proyecto de Orden de tercera modificación de la Orden de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula la evaluación y certificación de los niveles de competencia





KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

arautzen dira, eta helduentzako euskara-  
ikastaroetako ikasleentzako laguntzen  
deialdietarako irizpideak finkatzen dira.

lingüística en euskera, y se fijan los criterios  
para las convocatorias de ayudas al alumnado  
de los cursos de euskera para personas adultas.

**Bigarrena.**- Agindua ematea aipatu Agindu-  
egitasmoa izapidetzeko prozedurarekin  
jarraitzeko.

**Segundo.**- Ordenar la continuación de la  
tramitación del procedimiento de elaboración  
de la citada disposición.

### **Ibone Bengoetxea Otaolea**

Jaurlearitzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística